

PRENTSA OHARRA

Barakaldon, 2017ko martxoaren 1ean

Bi erakundeek lankidetzat hitzarmena sinatu dute
OSALAN ETA BASKEGUR-EK EUREN AHALEGINAK BATU DITUZTE
BASOGINTZA SEKTOREAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA HOBETZEKO

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak OSALANek eta Baskegur-ek, Euskadiko baso- eta zur-sektorea ordezkatzeko duen elkarte profesionalak, hitzarmena sinatu dute elkarrekin sektoreko laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko ekimenak bultzatzeko helburuarekin.

Prebentzioaren ikuspuntutik, basogintzako lanak berezko arrisku faktoreak ditu, hala nola, makineriaren erabilera, lan leku aldakorra eta sarritan malkartsua, eguraldia eta laneren ergonomia, zeinak eragina duten ez-behar kopuruan.

Horrela, lehen sektoreko eta bereziki basogintzako lan istripu datuak aintzat hartuta, erakunde publiko eta pribatuen arteko elkar-lana estutzeko eta akordioan jasotzen diren ekimenak bultzatzeko beharra babesten dute, zeinak ondorengo helburua duten:

- Ez-behar kopurua gutxitzea basogintza eta zuraren sektorean.
- Sektoreko beharginen lan ohiturak hobetzea, materiala, ekipoak eta teknologia egoki erabiltzeko.
- Sektorearen azpisektoreetan prebentzio kultura ezartzea.
- Sektorean lan-ingurune seguru eta osasuntsuak garatu eta bultzatzea.

Bestalde, eta basogintzako sektoreko prebentzio egoera hobetzeko asmo sendoarekin, OSALAN inguruko erkidegoetako erakundeekin lankidetzat arloak aztertzen hasi da, hala nola, Nafarroako Lan Osasun Erakundearekin edota Cano Taldea osatzen duten kantauriak erlaintzeko Laneko Segurtasun eta Osasun Erakundeekin.

Ekimen hauek guztiak 2015-2020 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian jasota datoz, bertan, lehen sektorean eta azpisektoreetan –elikadura, nekazaritza, abeltzantza, basogintza eta arrantza- prebentzioaren kudeaketaren integrazioa hobetzeko lan larria zehazki jasotzen da.

- Lan istripuak lehen sektorean

Basogintza barne hartzen duen lehen sektoreko lan istripuen erregistroak oinarri hartuta, 2015ean sektore horretan lanean ari ziren 1000 pertsonako 72,37 istripu jaso ziren eta horrek esan nahi du, arrisku gehien duen bigarren sektorea dela eraikuntza sektorearen atzetik, ondotik

datos industria eta zerbitzu sektoreak. Istripu larri eta hilgarrien kasuan, lehen sektorea da indize altuenak dituen eta zehazki basogintza da, 1000 langileko 589,1 istripurekin, EAEn istripu gehien duen produkzio aktibitatea.